

TRANSIZIO BEKEN ONURADUNENTZAKO GIDA

("LAN MUNDURAKO TRANSIZIO BEKA")

(2025/04/01)

1.	SARBIDEA.....	3
2.	FAKULTATE/ESKOLA BATEAN GRADUKO EDO GAITASUN MASTERREKO AZKENEKO MAILAN MATRIKULATUTA DAUDEN IKASLEEN EGITEKOAK	4
2.1.	Baldintzak.....	4
2.2.	Fakultate/Eskola batean matrikulatutako ikasleen hitzarmenen kudeaketa.....	4
2.3.	Graduko ikasleek irailaren 1etik 11ra bitartean GAURen izena eman eta matrikulatzeko egoera bereziak:	5
2.4.	Hitzarmena sinatzea	5
3.	2024-25 IKASTURTEAN GRADU BATEKO TITULUDUNEN EGITEKOAK	7
3.1.	Egitekoen laburpena	7
3.2.	GAURen izena ematea	8
3.3.	Matrikula GAURen.....	12
3.4.	Hitzarmenen kudeaketa.....	14
4.	BEKEN ONURADUN GUZTIENTZAKO IKASTARO OSAGARRIA 15	
5.	BEKEN ONURADUN GUZTIEN PRAKTIKEKIN LOTUTAKO EGITEKOAK	15
5.1.	Praktiken balorazioa	15
5.2.	Praktiketako ziurtagiria eskuratzea	16
6.	LAGUNTZA POLTSA.....	17
7.	NOLA JOKATU EGOERA DESBERDINEN AURREAN?.....	18
7.1.	Gaixotasun arrunta.....	18
7.2.	Istripuak.....	18
7.3.	Larrialdi kasuetan.....	18
8.	BESTELAKO ZALANTZAK ETA GORABEHERAK	19

1. SARBIDEA

Honako hauek dira trantsizio beken onuradun izateko sarbideak:

a) 2024-25 edo 2025-26 ikasturteetan Gradu edo gaitasun Masterreko azkeneko mailan matrikulatuta dauden ikasleek gida honetako 2. puntuko jarraibideei jarraitu beharko diete.

2.3. puntuan zehaztutako egoeretako batean daudenek 3. puntuko jarraibideei jarraitu beharko diete.

b) 2024-25 ikasturtean unibertsitateko gradu ofizialaren titulazioa lortu duten ikasleek gida honetako 3. puntuko jarraibideei jarraitu beharko diete.

Gaitasun masterrak (ikus koadroa) dira lanbide arautu batean aritzeko beharrezkoak direnak.

MASTERRA	FAKULTATEA/ESKOLA
Abokatutza eta Prokuradoretza	Zuzenbide Fakultatea
Arkitektura	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
Kontuen Ikuskaritza eta Goi Mailako Kontabilitatea	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
Aktuariotza eta Finantza Zientziak	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza (NATUR ZIENTZIAK ETA MATEMATIKA ESP)	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza (HEZKUNTZA ARTISTIKOA ESP)	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza (GORPUTZ HEZKUNTZA ESP)	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza (GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK ESP)	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza (HIZKUNTZA ETA LITERATURA ESP)	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza (HEZKUNTZA ORIENTAZIOA ESP)	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza (TEKNOLOGIA ESP)	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza (MUSIKA HEZKUNTZA, DANTZA ETA ARTE ESZENIKOAK ESP)	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
Telekomunikazioaren Ingeniaritza	Bilboko Ingeniaritza Eskola
Industria Ingeniaritza	Bilboko Ingeniaritza Eskola
Itsasketa	Bilboko Ingeniaritza Eskola
Nautika eta Itsas Garraioa	Bilboko Ingeniaritza Eskola
Osasun Psikologia Orokorra	Psikologia Fakultatea
Laneko Segurtasun eta Osasuna	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea

2. FAKULTATE/ESKOLA BATEAN GRADUKO EDO GAITASUN MASTERREKO AZKENEKO MAILAN MATRIKULATUTA DAUDEN IKASLEEN EGITEKOAK

2.1. Baldintzak

- a) Hezkuntza esparrutik lan arlora igarotzeko bekak eskatzeko Fakultateak/Eskolak ezarritako prozedura betetzea.
- b) Fakultateak/Eskolak hala eskatzen duen kasuan konpromiso dokumentua bidaltzea, bertan ezarritako epean.
- c) Hezkuntza lankidetzako programa bat garatzeko hitzarmena kudeatzea, Fakultatean/Eskolan ezarritako prozeduraren arabera.
- d) GAUren "Praktikaldietarako bankuko datuak" eremuan IBANa, kontuzenbakia eta GSZa gehitzea (**ez da bekarik eskuratuko baldintza hori betetzen ez bada**).
- e) EHUalumni zerbitzuan izena ematea:
<https://www.ehu.eus/eu/web/ehualumni/inscripcion>
- f) eGelaPi plataformara sarbidea izango du eta prozedura aurretiaz trantsiziobekak@ehu.eus helbidearen bidez helaraziko da. Ikus gida honetako [4. puntua](#).
- g) Praktikak egiterakoan UPV/EHUren Kanpoko Praktiken Arautegia betetzea.
- h) Ikasleak lortu beharko du adingabeekin lan egiteko sexu-izaerako deliturik ez dagoelako ziurtagiria, betiere adingabeekin lan egin behar badu.
- i) Bide horretatik praktikak egingo dituzten ikasleek **espedientea irekita izan beharko dute praktikak hasten dituztenean**, eta ez dute titulua eskatu behar praktikak bukatu arte.

2.2. Fakultate/Eskola batean matrikulatutako ikasleen hitzarmenen kudeaketa

Trantsizio beka bat jaso duen ikasleak harremanetan jarri beharko du bere Fakultatean/Eskolan praktikak kudeatzen dituen pertsonarekin, hitzarmena sinatzeko eta entregatzeko jarraibideen berri izateko.

Dokumentuaren 2.4. puntuan daude zehaztuta elektronikoki sinatzeko jarraibideak.

2.3. Graduko ikasleek irailaren 1etik 11ra bitartean GAUREn izena eman eta matrikulatzeko egoera bereziak:

Fakultateak/Eskolak urritik abendura bitarteko beka aldirako hautatutako pertsonak, beka jasotzeko baldintzak bete arren, ez badu matrikularik egin eta ez badu egingo, 2025-26 ikasturtean irailaren 11ra arte, trantsiziobekak@ehu.eus helbidera idatzi beharko du, baldin eta kasu hauetakoren batean badago:

- a. Bere titulazioko irakasgai guztiak gainditu ditu eta GRALa aurkeztu behar du, baina matrikulazio epea ez da iraila amaierara arte irekiko.
- b. Zalantzak sor ditzakeen beste edozein egoera, hala nola epaimahai bereziaren ebazpenaren zain egotea.

2.4. Hitzarmena sinatzea

Jarraibide hauek **Fakultate/Eskola batean matrikulatuta dauden eta deialdian beka baten onuradun izan direnek** jarraitu beharko dituzte.

1. Sinatu ahal izateko, programa hauetakoren bat instalatzea beharrezko izan daiteke:

- Adobe Acrobat: <https://get.adobe.com/es/reader/>
- Autofirma: <https://firmaelectronica.gob.es/Home/Descargas.html>
- Izenperen Idazki sinatzeko tresna: <https://www.izenpe.eus/idazki-sinadura-erremintak/webize01-cnsoluciones/eu/>
- BakQ txartel birtuala: <https://www.izenpe.eus/txartel-birtuala/webize00-cnciudadania/eu/>

2. Sinatzeko, gutxienez, ziurtagiri pertsonal bat izatea beharrezkoa izango da, besteak beste BakQ. Non lortu daitekeen ikusteko, kontsultatu esteka hau:

<https://www.izenpe.eus/bakq-aren-eskaera-puntuak/webize00-cn2ciudadania/eu/>

NAN elektronikoa eta txartel irakurgailua dutenek ez dute aurreko urratsa bete beharko.

3. Sinatzeko prozesuan aurrera egiteko, urrats hauek egitea gomendatzen da:

3.1. Izenperen dokumentuak sinatzeko sistemara sartzea:

<https://servicios.izenpe.com/herramientasFirma/mostrarFirmarDocumentosLote.do>



3.2. Hautatzea sinatu nahi duzun dokumentua (mahaigainean aurretiaz gorde duzun praktiketako hitzarmena). Horretarako, sakatu "gehitu" botoia:

AÑADIR


3.3. Oso garrantzitsua. Markatu egiaztapen laukitxo hauek: "Denbora zigilua" eta "Datuak ikusgarriak egin".

- ☒ Sello de tiempo
- ☒ Hacer visibles los datos de firma

3.4. Pantailaren beheko aldean, sakatu "jarraitu" botoia.

SIGUIR

3.5. Leiho berri bat irekiko da, eta bertan sinatzeko ziurtagiri bat aukeratu beharko duzu. BakQ ziurtagiriarekin sinatzeko, sakatu lehenengo aukera.



3.6.- Sistemak sinatuko duen pertsonaren NAN zenbakia eta BakQ txartelaren pasahitza eskatuko ditu.

3.7. Aurreko datuak sartutakoan, mugikorrean mezu bidez kode bat jasoko duzu, eta ordenagailuan irekitzen den leiho berean sartu beharko duzu.

3.8. Aurreko urratsarekin elektronikoki sinatzeko prozesua amaituko da, eta, hortaz, artxiboa (praktiketako hitzarmena) sinatuta automatikoki deskargatuko zaizu ordenagailuan. Kontuan hartu behar da dokumentua (praktiketako hitzarmena) mahaigainean edo nabigatzailearen artxiboak deskargatzen diren ohiko karpitetako batean gordeta gelditu daitekeela. Kontuan izan behar duzu non gorde den, gero eskura izateko. Bestalde, sinatu gabe eta sinatuta dagoen artxiboa (hitzarmena) desberdintzeko, izenari erreparatu beharko diozu. Azkeneko horrek honen antzeko etiketa izan behar du: "artxiboaren izena-signed".

3.9. Garrantzitsua da sinatzeko prozesuan praktiketako hitzarmena ez inprimatzea eta eskaneatzea, izan ere, kasu horretan baliozkotasuna galduko luke.

3. 2024-25 IKASTURTEAN GRADU BATEKO TITULUDUNEN EGITEKOAK

3.1. Egitekoen laburpena

(Oharra: "LAN MUNDURA TRANTSIZIOA" beken programa batzuetan sistema informatikoan "LEHEN AUKERA" gisa ager daiteke).

1. Izena eman aurretik IBAN kontu zenbakia eta GSZa bete behar dira, "Praktikaldietarako bankuko datuak" ikaslearen atalean, eta EHUalumni zerbitzuan izena eman behar da: <https://www.ehu.eus/eu/web/ehualumni/inscripcion>
2. Graduako titulazioa lortu den Fakultatean/Eskolan (egresatuak) izena eman beharko da, Fakultateak/Eskolak ezarritako prozedurari jarraikiz (praktikak kudeatzen dituen pertsonari jakinaraztea...).

3. Fakultateak/Eskolak eskatzen badu, konpromiso dokumentua sinatzea eskatutako epean.
4. Tituludunak lortu beharko du adingabeekin lan egiteko sexu-izaera deliturik ez dagoela ziurtagiria, betiere adingabeekin lan egin behar badu.
5. Ikastegiak bekaren onuradun izendatutako tituludunak **izena eman** beharko du irailaren 1etik 11ra, GAUREn bitartez, "LAN MUNDURA TRANTSIZIOA" profilean ([dokumentu honen 3.2 atala, 1-6 pantailak](#)) eta horretarako berezko LDAP gakoa erabili beharko du. Sartzeko arazoak izanez gero, [Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzura \(945014400\)](#) deitu ahal izango da.
6. Sistema informatikoan praktika bat esleitu zaion onuraduna **ahal bezain laster GAUREn sartu beharko da**, eta **matrikula** jartzen duen tokian sakatu, derrigorrezko ikastarorako sarbidea onartzeko: "Organizazioetan trebetasun bigunak (soft skills) garatzeko prestakuntza-programa" ([2.3 atala, 7-10 pantailak](#)).
7. Iraila bukaeran, trantsiziobekak@ehu.eus helbidetik eGelaPi plataformaren online ikastaro gehigarria sartzeko prozedura helaraziko da.

Zalantzak argitzeko informazioa dokumentuaren [8. puntuan](#) dago.

3.2. GAUREn izena ematea

Irailaren 1etik aurrera eta ahalik eta lasterren, Fakultateak/Eskolak onduradunari beka jasotzeko aukeratu duela jakinarazi ondoren, onuradunak IZENA EMAN beharko du GAUREn, "LAN MUNDURA TRANTSIZIOA BEKAK" profilean. Sartzeko arazoak izanez gero, Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua (945014400) deitu ahal izango da.

Gakoak erabilia sartu ondoren, eta tituludunek sartzeko eta izena emateko **titulua eskatu behar dutenez**, trantsiziobekak@ehu.eus helbidera idatzi beharko duzu, egoera hauetako batean bazea:

- Titulua eskatu ahal izateko beharrezko hizkuntza gaitasuna ez da espedientean agertzen, eta ikastegiko idazkaritzan berrikusi ondoren, informazioa ezin badute gehitu.
- Erasmus ikasturte baten bidez egindako irakasgaiak oraindik ez badira espedientean erregistratuta agertzen, eta ikastegiko idazkaritzan berrikusi

3. pantaila

Titulazio eta hizkuntzari buruzko datuak eguneratu:

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAUR - Integración

- Gestión de pagos pendientes
- Actualización titulares cuentas bancarias
- Tutorías
- Planes de estudio
- Becas Lan Mundura Trantsizioa
 - Gestión de becas
 - Realizar solicitud
 - Matrícula
- Intercambio Universitario
- Doctorado
- Censo
- Servicios SMS
- Matrículas
- Encuesta de Opinión al Alumnado
- Encuestas del practicum
- Titulos
- Exámenes
- Aportaciones
- Expedientes
- Prácticas obligatorias
- Prácticas voluntarias
- Ofertas de empleo
- Trabajos Fin de Grado - Trabajos Fin de Máster
- Servicio Discapacidad
- Consulta cuenta de correo y LDAP
- Consulta PII acceso Tarjeta Universitaria
- Cambio de contraseña
- Salir

Datos personales:

Tipo documento:	DNI	Nº documento:	45669979Y
Primer apellido:	APELLIDO283284	Segundo apellido:	APELLIDO2
Nombres:	NOMBRE	Fecha nacimiento:	09/10/1987
Sexo:	Mujer	Discapacidad:	Si
País nacimiento:	España	Nacionalidad:	española
Provincia:	Bizkaia	Municipio:	Basauri

Actualice sus datos personales:

Dirección:

(*) Datos obligatorios

Tipo vía:	Calle	Nombre vía:	Barrio de abajo
Número:	8	Escalera:	
País:	España	Piso:	8
Provincia:	Bizkaia	Letra:	A
Municipio:	Basauri	C.P.:	48970
Teléfono 1:	678989898	Teléfono 2:	678989898
E-mail personal:			

Actualice sus datos bancarios:

Titular de la cuenta:

Tipo documento:	DNI	Nº documento:	45669979Y
1er Apellido:	APELLIDO283284	2do Apellido:	APELLIDO2
Nombres:	NOMBRE		

Nº cuenta:

El titular de la cuenta bancaria tiene que ser la misma persona que solicita la beca LAN MUNDURA TRANSIZIO

Cuenta IBAN:	ES	BIC:	
--------------	----	------	--

Continuar

4. pantaila

Baldintzak onartu eta aukeraketa berretsi:

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAUR - Integración

- Egin gabe dauden ordaintzen kudeaketa
- Actualización titulares cuentas bancarias
- Autorizaciones
- Tutorías
- Reserva de plazas
- Lan Mundura Trantsizioa beka
 - Beka kudeaketa
 - Egin eskaera
 - Matrícula
- Unibertsitate-irakasleak
- Emollos
- SMS zerbitzuak
- Matrículas
- Ikasleen iritziren inkestak
- Practicumeko inkestak
- Orapena
- Tituluak
- Adrestitutak
- Ekurpenak
- Expedientak
- Praktikak
- Praktikak
- Baronak
- Lan-eskaintzak
- Gratu-amaierako / Master-amaierako lanak
- Degajaluzko zerbitzuak
- Konsumo-zerbitzuak
- Pasabiltza aldatu
- Inten

LAN MUNDURA TRANSIZIOA bekaren eskaera

Hau da eskaeraren behin-behineko laburpena, jarraitu baino lehen, egiaztatu datu guztiak ondo daudela.

Eskaeraren laburpena:

Eskatzaileraren datuak:

NA zk.:	79421654D	Eskatzila:	APELLIDO10153944PELLIDO2.NOMBRE
Titulazioa:	Arteleko Gradua	Zein hizkuntzatan jaso nahiko zenuke beziketa osagarriko ikastaro hau? Euskara	

Erantsitako dokumentuak:

Dokumentu mota	Dokumentuaren izena	Deskargatu
----------------	---------------------	------------

Eskaeraren baldintzak:

☒ Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako kupoen sartzeko aukera duten pertsona tituladunek beren desgaitasuna egiaztatze dokumentazioa entregatu beharko dute UPV/EHko Erregistro Orkorretan, bai eskaera Erregistro bidez egin dutenak (kasu horretan eskaerari erantsiko zaio), bai eskaera telematikoki egin dutenak. UPV/EHko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte-erantzukizunaren Arloko Erektoreordetza zuzenduko zaio dokumentazioa.

☐ Deklaratzen dut zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izana, eta horretarako exegaitzen duen legeko debekurik jaso ez izana. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken zedepenetako seigarrenaren ezarritakoaren arabera sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak bane.

☐ UPV/EHn baimena ematen diot deialdi honetan bidaltzeko datuak Unibertsitatearen eta UPV/EHn Enplegu Zentroen fitxategi informatizatuaren sartzeko, deialdiaren kudeaketa, izapidetza eta elazpene bideratzeko.


☐ Onartzen ditut deialdiaren ezarritako baldintzak.

Atzera | Berretsi

Eskaera onartu beharko duzu, eta Lan Mundura Trantsizioa beka eskatzeko izen ematearen frogagiria agertuko da.

5. pantaila

Baieztatu eta aurrera jarraitu:



LAN MUNDURA

Hau da eskaeraren bi...

Eskatzailaren datuak:


1. NA	2. NOMBRE
Titulazioa: Arteko Gradua	
Zein hizkuntzan jaso nahiko zenake heziketa osagarriko ikastaro hau? Euskara	

Erantsitako dokumentuak:

Dokumentu mota	Dokumentuaren izena	Deskargatu
Eskatzailaren baldintzak:		
☒ Degaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako lagunen sartzeko aukera duten pertsona tituladunek beren degaitasuna egiaztatuko dokumentazioa entregatu beharko dute UPV/EHko Erregistro Orokorretan, hai eskaera Erregistro bidez egin dutenak (kasu horretan eskaerari erantsiko zaio), bai eskaera telematikoki egin dutenak, UPV/EHko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte-erantzukizunaren Arloko Errektoreordetza zuzenduko zaio dokumentazioa.		
☒ Deklaratzen dut zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik jaso ez izana, eta horretarako exaltzen duen legeko debekurik jaso ez izana. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren ezarritakoaren arabera sexu-diskriminazioetatik gertatutakoak barne.		
☒ UPV/EHIn baimena ematen diot deialdi honetan bidaltako datuak Unibertsitatearen eta UPV/EHUn Enplegu Zentroen fitxategi informatizatuetan sartzeko, deialdiaren kudeaketa, izapidetza eta abazpina bideratzeko.		
☒ Onartzen dut deialdiaren ezarritako baldintzak.		

Atzera Berretsi

6. pantaila



LAN MUNDURA TRANSIZIOA bekaren eskaera

Eskatzailaren identifikazioa:


Datu pertsonalak:	
Agiri mota:	NAN
Lehenengo abizena:	APELLIDO1015394
Izena:	NOMBRE
Sexua:	Emakumekoa
Jaioterria:	Espainia
Probintzia:	Bizkaia
NA zk.:	79421654D
Bigarren abizena:	APELLIDO2
Jaioteguna:	2002/02/14
Ezgaratasuna:	Ez
Nazionalitatea:	espainiar
Udalerrita:	Bilbo

Eskaera behar bezala egin da.

Gordekina

Inprimatzeko, sakatu "Gordekina" botoia.

Pantailan eskaeraren frogagiria agertuko zaizu, gordetzeko edo inprimatzeko aukerarekin (2025-26 ikasturtekoa).



3.3. Matrikula GAUREn

Fakultateak/Eskolak sistema informatikoan praktika bat esleitu diola jakinarazten dioenean onuradunari, hura **ahal bezain laster GAUREn sartu beharko da**, eta **matrikula** jartzen duen tokian sakatu, esleitutako praktika eta derrigorrezko ikastarorako sarbidea onartzeko: "Organizazioetan trebetasun bigunak (soft skills) garatzeko prestakuntza-programa". (7-10 pantailak).


Oraindik ezin baduzu matrikulatu eta izena behar bezala eman baduzu, jar zaitez harremanetan zuren Fakultateko/Eskolak **praktiken arduradunarekin**, praktika esleitzeko.

7. pantaila



8. pantaila

Sakatu NANA.



Lan Mundura Trantsizioa bekaren matrikula


Hautatu zure eskaera:

Egindako eskaeren zerrenda:

NA zk.	Abizenak eta izena:	Ikastegia	Titulazioa	Egoera
79421654D	APELLIDO1015394APELLIDO2,NOMBRE	Arte Ederren Fakultatea	Arteko Gradua	Onartua

Egin klik dokumentu-zenbakian eskaera hautatzeko

9. pantaila



Lan Mundura Trantsizioa bekaren matrikula

Eskararen kudeaketa:

Eskatzailearen datuak:

NA zk.:	79421654D	Eskatzailea:	APELLIDO1015394APELLIDO2,NOMBRE
---------	-----------	--------------	---------------------------------


Eskararen datuak:

Eskara-urtea:	2024/25	Eskara-zk.:	4626	Egoera:	Onartua
Ikastegia:	Arte Ederren Fakultatea				
Titulazioa:	Arteko Gradua				
Enpresa:	Estudio Creativo ARTELIER				

Lan Mundura Trantsizioa bekaren matrikula egin behar duzu, edo uko egin behar diozu.

[Atzera](#)
[Matrikulatzea](#)
[Uko egitea](#)

Inprima ezazu zure matrikularen frogagiria (ikasturtea 2025-26 izango da).



2025eko apirilaren 11n


LAN MUNDURA TRANTSIZIOA BEKAKO MATRIKULAREN GORDEKINA
 IKASTURTEA: 2024/25

APELLIDO1015394APELLIDO2,NOMBRE jaunak/andreak matrikula egin du Lan Mundura Trantsizioa bekan Arteko Gradua titulazioarekin 2024/25 ikasturterako.

Matrikula-data: 2025eko apirilaren 11n

3.4. Hitzarmenen kudeaketa

Praktikak hasi aurretik, aldeek hitzarmena sinatu beharko dute, eta bekaren onuradun bakoitzak hitzarmena elektronikoki sinatu beharko du; horretarako, mezu elektronikoko bidez jasoko du beharrezkoa den informazio guztia.

4. BEKEN ONURADUN GUZTIENTZAKO IKASTARO OSAGARRIA

Beken onuradun guztiek Egelapi plataformara sarbidea izango dute eta ondorengo edukia izango du:

- Bekari buruzko informazio orokorra: gidak, Gizarte Segurantzza, etab.
- Beka kobratzeko kontu korrontearen titulartasuna adierazten duen dokumentua txertatzeko atala (IBAN zenbaki honek GAUREn grabatutakoaren berdina izan beharko du)
- Praktikaldiaren hasieran zeharkako gaitasunei buruzko ikastarorako sarbidea aktibatuko da

5. BEKEN ONURADUN GUZTIEN PRAKTIKEKIN LOTUTAKO EGITEKOAK

5.1. Praktiken balorazioa

Praktikaldia amaitzean, onuradunek praktikaldia baloratu beharko dute. "Ikastegia" eremuan (dokumentu honetako 3. ataleko kolektiboaren parte direnek honako ikastegi hau aukeratu beharko dute: "916: Hezkuntza esparrutik lan-mundurako trantsizioa". Horretarako, "txostenak- Memoria" menuan "IK" sakatu beharko dute.

Sarrera-proba - Ikasturteak					
Ikastegiko datuak					
Ikastegiko araudia					
Curriculum					
Albisteak					
Praktiken eskaintza					
Aurrehautapenean					
Adjudikazioak					
Tutoretzak Mintegiak					
Memoriak, txostenak eta ebalua					
Kanpoko praktika akademikoak					
Kudeatu abisuak					

Praktikaren izenburua	Enpresa - Unitatea	Probintzia	Herria	IK	IN	EB
Bezeroen arretarako Gestorea	LABORAL KUTXA	Bizkaia	Basauri			

Bete beharreko eremuak bistaratuko dira, eta memoria beteta dagoenean, "Gorde" eta "Onartu" sakatu beharko dute orrialdearen amaieran.

Borondatezko praktikak

Sarrera-proba - Ikasturteak

Ikastegiko datuak

Ikastegiko araudia

Curriculum

Albisteak

Praktiken eskaintza

Aurrehautapenean

Adjudikazioak

Tutoretzak Mintegiak

Memoriak, txostenak eta ebaluak

Kanpoko praktika akademikoak

Kudeatu abisuak

Azken memoria

(1etik 5erako balorazioa, 5 bikain izanik eta 1 gaizki)

Lanen zerrenda

Ord.	Egin beharreko jardueren edo lanen azalpena	Balorazioa
1	Bezeroen arreta, eta inzidentziak bideratu	1 2 3 4 5
2	Lan administratiboak, eta eskudiruaren gestioa bulegoan	1 2 3 4 5
3	Kontabilitate lanak	1 2 3 4 5
4	Bulegoko gestore espezializatuak lagundu, haien funtzio desberdinetan	1 2 3 4 5

1-5ko erantzuna duten itemetan, 1 gubxienezko balioa da eta 5 gehienezkoa. Azkeneko eremuan edozein iradokizun edo proposamena sar daiteke.

Praktikaren ekarpena ikasketaren mailan:

Hobekuntzarako iradokizunak:

* Praktika egindako enpresaren balorazio orokorra:

1 2 3 4 5

* Enpresako inktorearen balorazioa:

1 2 3 4 5

* Unibertsitateko tutorearen balorazioa:

1 2 3 4 5

* Praktiken programaren arduradunaren balorazioa:

Hori egin ondoren, memoria agertuko da, eta "IK" laukian marka berde bat izango du.

Borondatezko praktikak

Sarrera-proba - Ikasturteak

Ikastegiko datuak

Ikastegiko araudia

Curriculum

Albisteak

Praktiken eskaintza

Aurrehautapenean

Adjudikazioak

Tutoretzak Mintegiak

Memoriak, txostenak eta ebaluak

Kanpoko praktika akademikoak

Kudeatu abisuak

Praktiketako txostenak

Praktikaren izenburua	Enpresa - Unitatea	Probintzia	Herria	IK	IN	EB
Bezeroen arretarako Gestorea	LABORAL KUTXA	Bizkaia	Basauri	☒	☐	☐

5.2. Praktiketako ziurtagiria eskuratzea

Praktikaldia amaitu ondoren eskatu ahalko da ziurtagiria, betiere praktikak aldeko balorazioa jaso badu eta memoria beteta badago. Horretarako, menuan "Kanpoko praktika akademikoaren egiaztagiria" aukeratu beharko da.

Ikaslearen profiletik betetzen den memoria unibertsitateko tutoreak ikusi ahalko du, baina ezin izango du ikusi erakunde kolaboratzaileko begiralearen profiletik.

Trantsizio bekaren bitartez egindako praktiken ziurtagiria eskuratzeko, sakatu “Borondatezko praktikak” aukera matrikula egin duzun Fakultatean/Eskolan (3. ataleko kolektiboaren parte direnek honako ikastegi hau aukeratu beharko dute: “916 hezkuntza-esparrutik lan-mundurako trantsizio-beken bulegoa”, eta ez menu zabalgarrian lehenetsita agertzen den ikastegia; izan bere, lehenik eta behin graduko titulazioa lortu zuten Fakultatea/Eskola agertuko da.) Ikastegia hautatu ondoren, gezien laguntzaz 2025-26 ikasturtea aukeratu beharko duzu.

Ikastegiaren eta ikasturtearen hautapena

Hautatu zein ikastegirekin lan egin nahi duzun eta zein ikasturtetan.

Hautatu ikastegia:

916 Hezkuntza-esparrutik lan-mundurako trantsizioa

Ikasturtea:	Egoera
>> 2024/25	Irekita

Sakatu “Eskatu” botoia. Aukera hori aktibo egongo da memoria bete baduzu eta irakasleak zure praktikaldia baloratu badu.

Kanpoko praktika akademikoak egin izanaren ziurtagiri-eskaera

Amaitutako praktiken ziurtagiria eskatzeko aukera agertuko da, betiere, ziurtagiriaren eskaera kudeatu gabe badago.

	Enpresa / Unitatea	Praktiken izenburua	Probintzia	Herria
>> Egin gabe dago...	LABORAL KUTXA	Bezeroen arretarako Gestorea	Bizkaia	Basauri

Praktiken ziurtagirien historia

Egoera	Eskaera-data	Inprimatze-data
Ez dago daturik		

Ziurtagiria korreo elektroniko bidez jasoko duzu.

6. LAGUNTZA POLTSA

Praktikaldi osorako kopuru gordina 1.500 eurokoa da, eta horri dagokion zerga atxikipena kendu beharko zaio. Poltsa ordainketa bakar batean ordainduko da, praktikaldia amaitzean.

Bekari uko eginez gero, eta praktikaldia egokia izan bada, egindako praktikaldiaren zati proportzionala ordainduko da.

7. NOLA JOKATU EGOERA DESBERDINEN AURREAN?

7.1. Gaixotasun arrunta

Gaixotasun arrunt bat dela eta, ezin bazara bertaratu praktikaldia egiten ari zaren erakunde kolaboratzailera, baja jakinarazi beharko diezu zure Fakultate/Eskolako praktiken arduradunari, erakunde kolaboratzaileko begiraleari eta zure Fakultate/Eskolako tutoreari.

7.2. Istripuak

Istripu bat izanez gero, gertatutakoari buruzko datu guztiak (identifikazioa, ordutegiak, tokia, inguruabarrak eta lesioak) Fakultateari/Eskolari eta trantsitziobekak@ehu.eus helbidean jakinarazi beharko dizkiozu.

Honako **itunpeko zentro** hauetako edozeinetara joan beharko duzu:

CENTRO CONCERTADO	PROVINCIA	DIRECCIÓN
QUIRÓN BIZKAIA	BIZKAIA	Crta. de Leioa-Unbe 33 bis. 48950 Erandio
IMQ VIRGEN BLANCA	BIZKAIA	Maestro Mendiri nº 2. 48006 Bilbao
IMQ ZORROTZAURRE	BIZKAIA	Ballets Olaeta nº 4. 48014 Bilbao
QUIRÓN DONOSTIA	GIPUZKOA	Parque Alcolea nº7. 20012 San Sebastián
POLICLÍNICA GIPUZKOA	GIPUZKOA	Paseo Miramón nº 174. 20014 San Sebastián
QUIRÓN VITORIA	ÁLAVA	La Esperanza nº 3. 01002 Vitoria

7.3. Larrialdi kasuetan

Asegurudunak bizi-larrialdiko laguntza medikoa jaso ahalko du **hurbilen dagoen zentro medikoan**.

24 ordu igarotzen direnean, eta bizi-larrialdiko laguntza jaso ondoren, asegurduna itunpeko zentro medikoren batera eraman beharko da tratamenduarekin jarraitzeko.

Asegurudunaren betebeharra da 24 orduko epean itunpekoa ez den zentro batean egindako egonaldiaren berri ematea, xehetasun guztiekin (identifikazioa, ordutegiak, tokia, inguruabarrak eta lesioak), honako helbide elektronikoa honetan: (trantsiziobekak@ehu.eus).

Konpainiak itundu gabeko zentro medikoren batean egonez gero, konpainiaren berariazko baimenik gabe, konpainiak ez ditu ordainduko jasotako zerbitzuetatik eratorritako fakturak.

Beharrezkoa da **berariaz konpainia aseguratzalearen aurretiazko baimena izatea** honako zerbitzu hauetarako:

- Diagnosi probak (OTA, EMN, ECO, artroskopiak, Gamma grafiak, etab.).
- Ebakuntza kirurgikoak.
- Errehabilitazio saioak.
- Lekualdatzeak (anbulantziak, taxiak, etab.).

Baimena eskuratzeko, jarri harremanetan honako hauen bidez:

- **Helbide elektronikoa:** siniestrosgcsmadrid@zurich.com
- **Telefonia:** 91 458 9070 - luz. 415 eta 210 (08:00etatik 13:30ak arte eta 15:00etatik 17:00ak arte) **24 orduko arreta duen telefonia: 93.267.10.55.**

8. BESTELAKO ZALANTZAK ETA GORABEHERAK

Zalantza/arazoa	Jarduketa
Arazoak GAUREko gakoekin	Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua (945014400) edo EHUalumni zerbitzua (www.ehu.eus/ehualumni)
Izena ematea eta matrikula egitea GAUREn	Jarraibideei/gida pantailei jarraitu, eta horrela konpontzen ez bada: trantsiziobekak@ehu.eus
Ikastaro osagarrian izena ematea	
Hitzarmenaren kudeaketari buruzko zalantzak	
Ikastaro osagarriko aurrez aurrekoak ez diren atazei buruzko zalantzak	eGelaPi plataforma

Zalantzak edo gorabeherak erakundean/enpresan egon bitartean	Honako hauei jakinarazi: – Fakultateko/Eskolako praktiken arduraduna – Begiralea – Irakasle tutorea – Praktikaldia utzi behar bada: Fakultatetik/Eskolatik bidaliko dizuten eranskina bete eta bidali.
Laguntza poltsari buruzko zalantzak	trantsiziobekak@ehu.eus
Praktikak egin ondoren ziurtagiria eskuratzeari buruzko zalantzak	